

274. zk.

Bigarren aroa

Apirilak 1
2016

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

50 urte bete ditu Sancheskiren lehen monopatinak

Elkarrizketa

Nerea Sarriegi, Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren irabazlea

4. orrialdea



Erreportajea

Gabarrariak

7. orrialdea



- 4 Caser
- 5 Erreportajea: Gora egin du birziklatze tasak.
- 6 Erreportajea: Arkitektura alternatiboa.
- 10 Berri laburrak: Zenbait berri.
- 11. Haurren lanak: Txingudi Ikastola HH.
- 12 Gazteen lanak: Hirubide DBH2.
- 13 Gaztea: Gorka Martinez blogariari elkarrizketa.
- 14 Gazte infor
- 15 Agenda



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa

Irun atzo Irun gaur

IUA: 56641

**Alejandro Lopez**

Isiltasuna Kolon ibilbidean.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Santa Elena karrika



Kalearen izena alkatetzak proposatu zuen 1859ko martxoaren 30eko Osoko Bilkuran. Urdanibia plazaren ondoan hasten da, eta Udala Ospitale zaharraren paretik Dunboa kanalaren gaineko zubiaraino doa, puntu horretan lotzen delarik Ermita kalearekin.

Irun zaharreko kaleetako bat da, denborak aurrera egin arren, izena aldatu ez duena. Izen hori eman zioten, herritik izen bereko iturria eta ermitara zihoan kalea zelako. Santa Elenako iturria, lehenagotik egon bazegoen ere, gaur egun ezagutzen dugun bezala 1678-79 urteetan eraiki zuen Agustin Zamora harginak.

1883an, Pedro A. Rekondo eta Juan Jose Agi-

naga arkitektoek erredaktatutako proiektua erredutzat hartuz, Santalenburun garbitoki bat eraikitzea onartu zen, Santa Elena ermita baino pixka bat gorago, erreken ondoan. 24 garbitzailerentzako tokia izango zuen garbitoki horren aurrekontua, 8.807,24 pezetakoa izan zen. Errekan gora hain toki urrunean eraikitzeko proposatu izanak bi arrazoi zituen: mareak igotzean erreko urak eta itsasoko urak ez nahastea, eta Santa Elenako errotaren lana ez kaltezea.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea: Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sansebastian.com

Argitaratzailea:

837 comunicación y

publicidad S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Tel: 693 828 099

Anaka kalea, 11
IRUN
943-61-54-57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943-64-54-57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Wazozaragoria de Politika Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Nerea Sarriegi

“Tratu txarrak existitzen direla esan gabe, horiek ikusarazi nahi nituen”

Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren bigarren edizioako sariak banatu zituzten martxoaren 13an, Irungo Urdanibia plazan. 2008ko sanferminetan erail zuten Nagore Laffageren amaren omenez antolatzen du lehiaketa TASTxingudi Anti Sexista Plataformak. Indarkeria sexistaren gaiari buruzko ipuinak saritzen ditu. Aurten 417 lan jaso dituzte antolatzaileek, iaz baino 108 gehiago. Gaztelaniazko atalean Olga Alicia Ferrari argentinarraren, *Como el viento* lana saritu dute. Euskarazkoan, Nerea Sarriegi Atienza gazte hondarribiarak irabazi du, *Zeinek lortu du?* ipuinari esker. Bere lehen esperientzia izan da literatur lehiaketa batean.

Zeinek lortu du?

Lortu du. Ezkutatu da, gaur ere, itzalen atzean. Eskuak garbitu, korbata jantzi, kolonia bota, zapatak lotu eta kalera irten. Leihotik ikusten dut ataritik ateratzen. Bizilaguna topatu du, eta betiko irribarre zintzoarekin agurtu du. Honek erantzun, emazte eta alabarengatik galdetuz. “Dena ondo”, eguneroko gisan. Urruntzen den heinean lasaitasuna berpizten da etxean, logelako irratia bolumenak gora egiten duen bitartean. Irratia amak erabiltzen duen tresna da, entzun ez diezaiodan. Baina badaki jada entzun behar ez nituen gauza gehiegi entzun ditudala.

Gaur ere lortu du. Amorruez beteriko hitzen artean logelako irratia apurtu du eta, horrekin, amaren munduko ihesbidea. Atea itxi duenean, bizitzan lehen aldiz entzun dut erabateko isiltasuna etxean. Eta orduan jabetu naiz amak irratia pizteko duen obsesioak ezkututzen duenez. Mina ekiditeko bidea da, baztertzeko, lausotzeko eta ia ezabatzeke. Zenbaitetan, isiltasunak hitzek baino min handiagoa eragin dezake.

Gaurkoan ezberdina izan da. Logelatik entzun dut oihuka, amari gosaria egiteko eta arropa prestatzeko agintzen. Baina altxa denean, ez zegoen amaren arrastorik. Inoiz baino suminduago, etxetik irten da lanerako bidean. Ordubetera ama iritsi da, irrifarrez, irratia berriarekin. Piztu egin du, eskutik heldu nau eta dantzan hasi da. Ulertzen ez dudana disdira berezia du begietan. Baina ulertu dut ez dudala azalpenik behar.

Gaur tinbrea jo dute. Aitak ireki du atea, amak logelako atetik irrifar erdiz begiratzen duen bitartean. Bi gizonen eraman dute aita, bakoitzak beso batetik helduz. Atea itxi denean amak irratia bolumena igo du. Gaur, berak lortu du. Ausartu da. Bukatu da.

Noiztik izan duzu idazteko zaletasuna?

Betidanik gustatu izan zait idaztea. Baina asko idatzi dudana arren, inoiz ez naiz ausartu lehiaketetan aurkeztera. Asun Casasola lehen lehiaketa izan da niretzat. Amari esker izan nuen haren berri, eta aurkeztera animatu nintzen, nire lanak erakusteko garaia zela pentsatu nuelako. Hala ere, inola ere ez nuen pentsatzen irabaziko nuenik. Harriduraz hartu nuen albistea.

Lehiaketaren gaiak ere eragina izan al zuen?

Nire parte hartzearen motibazio nagusietako bat izan zen lehiaketaren arrazoia. Indarkeria sexistaren gaitza denon ardurara da, eta nire ustez, horrelako ekimenek aurrera pausoak ematen laguntzen dute. Nire ekarpena ere egin nahi nuen.

Zer kontatu duzu zure ipuinean?

Tratu txarrak existitzen direla esan gabe, horiek ikusarazi nahi nituen ipuinean. Ideia sinplea zen, baina badirudi epaimahaiko kideei gustatu zaiela. Ni oso eskertuta nago. Baldintza zen ipuina lehengo urtean irabazle izan zen lanaren azken esaldiarekin hastea. Kasu honetan ‘lortu du’ hitzak izenburura ere eraman nituen.

Lagunekin edo senideekin konpartitu duzu lana?

Behin saria jaso ondoren, bai. Baina egia esan, idazten ari nintzela, ez. Gabonetako oporretan idatzi nuen. Sari banaketan ipuina irakurri zuten, eta lotsa pixka bat sentitu nuen, inoiz ez delako nire testu bat beste inon irakurri.

Idazten jarraitzeko indarra eman dizu sariak?

Idazten jarraituko nuke irabazi edo ez, asko gustatzen zaidalako, eta gehiago, halako helburuekin baldin bada. Baina noski, sariak aurrera egiteko motibazioa eman dit. Bide batez, antolatzaileak zoriondu nahi nituzke, lan handia egiten dutelako, eta oso ondo antolatzen dutelako. Parte hartzea asko handitu da joan den urtearekin konparatuta, eta uste dut jendea gero eta kontzientziatuago dagoela gaiarekin.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Caser Anaka

Caser Anakako 3 egoiliarrek 100 urte baino gehiago bete dituzte martxoan

Hainbat jarduera egiten dituzte hilabetero Caserren, eta horien berri eman ohi dugu Iruneron. Oraingoan ez dugu jarduerari buruz hitz egingo, María Mederori buruz baizik. Martxoan ehun urte baino gehiago bete dituzten egoiliarretako bat da.

Historiaz, oroitzapenez eta bitxikeriaz betea dago bizitza. Atzo edo joan den astean egin genuenaz gogoratzen gara, eta zailtasun handiagoarekin, duela hilabete egin genuenaz ere bai. Aspaldiko bizipenak gogoratu nahi ditugunean, ordea, askotan ez zaizkigu aspektu garrantzitsuenak burura etortzen, zenbait xehetasun baizik. Edonola ere, oroitzapen horiek historia bat sortzen dute. Pentsatu, orain, zenbat historia egon daitezkeen Caser Anakaren moduko erresidentzia batean.

Martxoan, Reimundak, Arcadiak eta Mariák 102, 104 eta 103 urte bete dituzte, hurrenez hurren. Adin horretara ailegatzeak pentsaezina dirudi, baina are harrigarriagoa da erreportajea egiterakoan erakutsi duten osasuna eta bizitza. María Mederorekin hitz egin dugu. Ez dugu galdera askorik egin beharrik. Aski da entzutearekin. Asko du kontatzeko, eta bere buruak eta osasunak aukera ematen diote, gainera.

Esertzerakoan oroimen ona duela ohartarazi du. Irungo alkateak egin zion bisita, eta berarekin izan zuen elkarrizketa gogoratu du: "Alkatea etorri zen duela gutxi, eta harrituta gelditu zen, 100 urte bete nituenean ere etorri zela gogorarazi niolako".

Ondoren, Irun hiriarri buruz hitz egin genuen. "Irun ez zen Irun, garai hartan. Ezer gutxi zegoen. Oso ondo bizi izan gara beti, hori bai. Colon Ibilbidea asko aldatu da. Orain askoz hobeto dago". Baieztapena egin du bukaeran: "Irun Irun da orain".

Ohituren aldaketez hitz egin dugu, eta zenbait bitxikeria azaldu ditu: "Baserritarrek etxera ekartzen zidaten esnea. Ikaragarri gustatzen zitzaidan. Gerraren ondoren ere ekartzen zidaten". Extremaduran jaiotzen zen María, eta 14 urterekin iritsi zen Irunera. "Nire oraitzapen zoriontsuena, ezkondu nintzen eguneko da. Hasieran Behobian bizi izan ginen, eta gero hiri erdira etorri ginen. 80 urte daramatzat hemen". Gaur egun, seme-alabak, bilobak eta birbilobak ditu Mariák. Bere bizitzan dena ondo joan dela esanez amaitu du.



Arcadiak 104 urte bete zituen martxoaren 4an



Reimundak 102 urte bete zituen martxoaren 15 ean

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Gora egin du birziklatze tasak

Gai organikoen bilketaren hazkundera azpimarratu du Txinzerrek

%2,69 handitu da Irungo eta Hondarribiko birziklatze tasa 2015ean. Txingudiko Zerbitzuak enpresa publikoak emandako datuen arabera, %43,59koa da gaur egun. Datuak baikorrak direla adierazi du Txinzerrek, ingurumenari begira, noski, baina ekonomiari dagokionez ere bai, hondakinak zabortegira bidaltzeko kostuetan gutxiago gastatzen delako. Zabortegira bidalitako hondakinen kopurua %1,29 murriztu dute, 2014 urtearekin alderatuta.



Gai organikoen bilketan izan den hazkundera da 2015eko birziklatze tasaren gorakadaren arrazoi nagusi. %8,6ko igoera izan du hondakin organikoen bilketak, eta 3,6 tona jaso dituzte guztira. 17.108 familia daude edukiontzi marroiaren erabiltzaile gisa izena emanda, Irunen eta Hondarribian. Kontratuen erdia baino pixka bat gehiago da hori. Izena emanda dauden familiei, hondakin tasa txikiagoa aplikatzen hasi zaie Txinzer, parte hartzea bultzatzeko.

Arazo bat du, hala ere, orain arte edukiontzi marroiarekin erabilitako sistemak. Ez baitu bermatzen izena emandako familia guztien parte hartzea. Leire Zubitur Txingudiko Zerbitzuak enpresa publikoko gerenteak berak onartu du: "Egia da familia asko ditugula apuntatuta edukiontzi marroiaren sisteman, baina ikusten dugu, jasotzen dugun hondakin kopuruarekin, ez dela posible jende guzti horrek birziklatzea". Edukiontzi irekitzeko txartel

elektronikoa eta beste zenbait neurri aztertzen ari dira Txinzerreko arduradunak. "Izena emanda dauden guztiek parte hartze aktiboa izan dezaten lan egin behar dugu", adierazi du Zubiturrek.

Azpimarratzekoa da %55eko gorakada izan duela sortzaile handi deituri-koetan bildutako hondakin

organikoaren kopuruak. Ikastetxeak, ospitalea, jatetxeak eta enpresa handiak sartzen dira, besteak beste, sailkapen horretan. 2014an hasi ziren ildo hori lantzen, eta izan dezakeen garrantzia irudikatzen datu esanguratsua eman du Leire Zubiturrek: "15.800 familiarekin, 100 tona jasotzen ditugu. 22 enpresarekin, berriz, 30 tona. Argi gelditzen da sortzaile handien ekarpenarekin asko hobetu daitezkeela datuak". Hori dela eta, hondakin sortzaile handi horien arduradunak kontzientziazeko lan handia egin behar dutela aitortu du Txinzerreko gerenteak.

Beste gaii dagokienez, birziklatze tasa etxeko hondakin arriskutsuetan handitu da batez ere, %45,4ra heltzeraino. Bestalde, gailu elektronikoetan (%12) eta piletan (%11,4) ere, igoera nabarmena izan da. Bilakaera positiboa izan da, era berean, ehunetan (%6,2), ontzietan (%1,7) eta beiran (%1,4). Birziklatze tasan behera egin duten gaiak ere badira, ordea. Birziklatutako olio kopurua %14 jaitsi da, eta papera %3. "Separazio guztiak ez dira aldi berean hasi, eta bakoitzak bere erritmoa du", argitu du Leire Zubiturrek.

Europar Batasunak markatutako kopururik urrun

Eskualdeko birziklatze tasaren joera gorakorra da, eta beraz, balorazio baikorra egin du Txinzerrek. Hala ere, igoera motela dela onartu du Leire Zubiturrek. Europar Batasunak nahi dituen datuetatik urrun dagoela oraindik: "Europar Batasu-

nak markatzen dituen datuen arabera, %60a iritsi behar genuke 2020an. Kopuru horretara ailegatzeko, esfortzu handia egin behar dugu denok".

Herritarrez gainera, Txinzerrek ere ardura duela baieztatu du Zubiturrek: "Herritar batzuek oraindik ez dute hausnartu ere egin birziklatzeak edo ez birziklatzeak izan ditzakeen ondorioei

buruz. Horiekin kontzientziazio lana egin behar dugu". Sentsibilizazio kanpainak dira lanketaren adarretako bat. Prozesu motelak direla gogorarazi du Zubiturrek: "Pentsaezina da kanpaina baten emaitzak egun batetik bestera agerian gelditzea". Beste adarra, Txinzerrek ikastetxeetako haurrentzat eta gaztetxoentzat antolatzen dituen tailerrak dira. "Haurrek birziklatzearen beharra ulertzea gakoa da, gero jarrera hori naturaltasunez mantendu dezaten", adierazi du Zubiturrek. Denbora beharko du, beraz, birziklatzeari buruzko kontzientziazioak.

"Edukiontzi marroiaren sisteman izena emanda dauden guztiek parte hartze aktiboa izan dezaten lan egin behar dugu"

Leire Zubitur, Txinzerreko gerentea

"Hondakin sortzaile handien ekarpenarekin asko hobetu daitezke datuak"

Leire Zubitur, Txinzerreko gerentea

T & T Hizkuntzak



- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- INGELESA, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA, ITALIERA, ESPAINIERA
- Enpresentzako klaseak eta ikasleentzat alor guztietako laguntza klaseak
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak



Kale Nagusia, 27 - IRUN - 943 63 52 59
academiatyt@gmail.com

Hirigintza proiektuak garatzeko modu alternatiboak

Gero eta prozesu parte hartzaile gehiago proposatzen ari dira erakundeak azken urteotan. Baita Irunen ere. Metodologia eta dinamika ezberdinak erabili izan dira, ez baitago prozesuak zehaztuko dituen araudirik. Orokorrean, jendearen inplikazio eskasa da prozesu parte hartzaileei egiten zaien kritika nagusia. Landetxan burutu dute azkena, eta jendea erakartzea zaila dela onartu dute antolatzaileek. Landetxa Auzo Elkarteak eta Hiritik At arkitektura sozialeko elkarteak aurrera eraman dute, Irungo Udalaren babesarekin. Ugaldeko kirol gunea hobetzeko proposamenak bildu dituzte.

2014 urteko Irungo Aurrekontu Parte Hartzaileetatik kanpo gelditu zen Ugalde kirol gunea berritzeko proiektua. "Auzo elkarteak arazoak izan zituen proiektua azaltzeko. Guztia bisualago adierazteko laguntza eskatu ziguten. Planoak egin genituen, txostena moldatu genuen, eta proposamena udalaren aurrekontuetan onartu zuten azkenean", argitu du Miren Lantz Hiritik At-eko kidea. Zubi lana egin zuen arkitektura sozialeko elkarteak, auzo elkartearen ideiarene eta udalaren eskakizunen artean. "Proiektua erakundeek eskatzen duten formatu teknikoan aurkezteko gaitasunik ez zuen auzo elkarteak", erantsi du Hiritik At-eko Iker Eizagirrek.

Landetxako bizilagunen eskaerari erantzuteko, prozesu parte hartzailea sustatu zuen Irungo Udalak. Hiritik At elkartearen esku utzi zuen zuzendaritza teknikoak, gaia gertutik jarraitu zuelako. Eizagirrek baieztatu du planteamendu argiarekin heldu ziotela prozesuari: "Alde bateatik, aholkularitza teknikoak eman behar genuen. Bestetik, jendearen parte hartzea sustatu Horretarako, proposamen arkitektonikoak metodologia ulergarri baten bidez egin behar genituen". Lehenengo fasean, ideien zaparrada jaso zuten. Galdetegi bat sortu eta auzoko postontzietan banatu zuten. Auzo elkartearen egoitzan, Elatzeta eskolan, Landetxako estankotan eta Mariño eta Oinaurre tabernetan ere utzi zuten. Bestalde, web gunean internet bidez erantzuteko aukera eman zuen udalak. Otsailaren 26ra arte hartu zituzten proposamenak.

Hiritik At-eko kideek kirol gunearen erabiltzaile diren elkarteekin, eta erabiltzaile potentzial izan daitezkeenekin elkarrizketak egin zituzten. Ondoren, martxoan zehar, tailerrak burutu zituzten. Lehenengoan bizilagunen beharrak lehenetsi zituzten, eta bigarrenean, arkitektura proposamenak egin zituzten. Bigarren horre-

"Xaboi pastilla batzuekin eskalan egindako modulu batzuen bidez eraman genituen proposamenak espaziora"

Iker Eizagirre, Hiritik At-eko kidea

"Garrantzitsuena da ateratzeko den proposamena auzoko bizilagunen beharretatik sortua izango dela"

Maidar Martiarena, Landetxa Auzo Elkarteak

tara jendea beldurrez joan zela onartu du Iker Eizagirrek. Baina uste du planteatu zuten metodologiarekin asmatu zutela: "Xaboi pastilla batzuekin eskalan egindako modulu batzuen bidez eraman genituen proposamenak espaziora. Lego piezekin jolasean ariko balira bezala kokatu zituzten parte hartzaileek". Azken tailerrean, Ugalde kirol gunearen kudeaketa ereduari buruz aritu ziren. Apirilaren 15ean emango dute emaitzen berri, 19:00etan auzo elkartearen egoitzan.

Parte hartzeko ohitura eskasa

Guztira, 25 lagun inguruk parte hartu dute tailerrean. "Jendeak ez du halako prozesuetan parte hartzeko ohiturarik, eta kosta egiten zaio hurbiltzea", kexu da Fernando Arozena Landetxa Auzo Elkarteak kidea. Dena den, multzo horretan belaunaldi ezberdinetako emakumeak eta gizonak bildu zirela azpimarratu du auzo elkarteak Maidar Martiarenak: "Garrantzitsuena da ateratzeko den proposamena auzoko bizilagunen beharretatik sortua izango dela". Modu ez zuzen batean, galdetegiaren bidez, 220 lagun inguru izan dira parte hartzaileak, eta 320 proposamenak. Kopuru horien balorazio baikorra egin du Martiarenak.

Orain, kezka handiena da prozesuaren emaitza izango den proiektuak non amaituko duen. "Jendeak horixe galdetzen du", aitortu du Iker Eizagirrek: "Gaur egun, prozesu parte hartzaileek ez dute bermerik. Alderdi politiko batek proiektua bere egin dezake, eta aurrekontuetara eraman. Edo ez, kaxoi batean gelditu daiteke, bestela". Prozesuaren izaera ez lotesleak min handia egiten duela uste dute Hiritik At-eko kideek. "Parte hartzeak ez baldin badu emaitzarik ematen, jendea frustratu egiten da", adierazi du Miren Lantzek. Berme handiago batek jendearen parte hartzea emendatuko lukeela uste dute. Ugalde-Landetxari dagokionez, hiritarrek haien proposamena egin dute, eta interesez jarraituko dute haren ibilbidea.



Hiritik At, arkitektura soziala

Sei lagun elkartu ziren duela hiru urte, arkitekturaren eta ingeniariaren arloetako ikasketak amaitu berriak. Elkar ezagutzen zuten, mugimendu sozialean batera ibiliak zirelako. Mugimendu horietan, haien ikasketekin lotutako esperientzia batzuk egindakoak ziren. Ondo hausnartu ondoren, esperientzia horiek profesionalizatzea erabaki zuten. Hiritik At sortu zuten horretarako. Espazioarekin edo hirigintzarekin lotutako proiektuak egiten dituztela azaldu du Miren Lantzek, baina filosofia argi bat dutela: "Paper baten gainean hormigoizko munstroak ideatu beharrean, gizartea eraldatzeko ekarpenak egitea dugu helburua". Iker Eizagirrek uste du espazioaren ekoizpena ez dela hiritarraren ongizaterako helburuarekin egiten, kapital metaketaren prozesua laguntzeko baizik. "Orain, unibertsitatean lortu ditugun jakintza teknikoekin, espazioaren kudeaketa aldatzeko tresnak ditugu".

Hiritik At osatzen duten gazteen helburua da haien lana eta eguneroko pertsonala ez banatzea. "Askotan hori gertatzen da. Gure eguneroko jardueretatik edo nahiko genukeenetik zeharo aldentzen gaituen enplegua izaten dugu", azaldu du Iker Eizagirrek. Haien bizitzeko diru-sarrerak batzuk emango dizkien, eta bide batez, testuingurua eraldatzeko balioko duen tresna sortu dute. Momentuz, elkarte egitura eman diote Hiritik At proiektuari. Hiru lagun daude soldatarekin lanean. Gainerako sei kideek astean behin egiten dituzten bilera txikiak, edo hiruhileko bakoitzeko asanbladan parte hartzen dute. Ordaindutako zenbait lan egin dituzte dagoeneko: Lekeition jauregi-etxe bat biziberritzeko parte hartze prozesua, Hondarribiko Udalarekin baserrien eta lursailen errolda, Udalbiltzarekin jakintzaren inguruko saretze prozesua, eta Bilboko Otxarkoaga auzoan espazio publikoa erabiltzeari begira jolasak antolatzea.

Epe luzeko lan ildo estrategikoak dituztela argitu du Miren Lantzek: "Nekazaritza hirietan txertatzea eta ez galtzea da horietako bat. Kooperatibismoa lantzea, bestea". Bidasoa Bizirik garapen agentziarekin harremanetan dago Hiritik At, eta Olatukoop ekonomia sozial eraldatzailearen sarean parte hartzen du. Lakaxita gaztetxean dute bulegoa, eta kezka bizi izan dituzte San Migel-Anaka eremuaren plan bereziaren modifikazioari buruzko berriak, ordenaziotik kanpo gelditu baita eraikina. Irungo Udalarekin harremanetan ari dira, gune autogestionatuaren biziraupena bermatzeko. "Eraikinarekin zer egin eztabaidatu beharko litzateke. Baina proiektu sozial gisa, zilegatasuna duela uste dugu", adierazi du Miren Lantz-ek. Haien lan jarduerari esker, auzian erabilgarri izan daitezkeen ezagutza teknikoak lortu dituztela nabarmendu du Iker Eizagirrek: "Plan berezi bat zer den, nola egiten den, zein norma juridiko dituen etab.". Lana eta mugimendu sozialean parte hartzea uztartzeko helburua beraz, betetzen ari dira.

Azken gabarrariak

José Luis Zabalak egindako dokumentazio lana bildu du
Amaia Kultur Zentroan dagoen erakusketak

Hiriak Bidasoa ibaiari gehiago begiratu behar diola azpimarratu izan dute ordezkari politikoek aurten, behin baino gehiagotan. Bizkarra emanda bizi izan direla urtetan. Azken hamar-kadei buruz ariko ziren, ibaiarekiko harremana estua izan baita Irunen, historian zehar. Amaia Kultur Zentroan dagoen erakusketara hurbiltzearekin aski da, lotura horren neurria ikusteko. Mendetan zehar Bidasoan gora eta behera ibili ziren gabarrariak eta haien ofizioa gogoratzen ditu. Adinekoentzat, aspaldiko oroitzapenak eguneratzeko aukera izango da. Gazteentzat, aurkikuntza harrigarri bihur daiteke.



Beste garai bateko Irun hiria irudikatzen du Bidasoko Gabarrariak erakusketak: garraioa ibaian zehar, nekazariak Santiagoko irletan, hondotik harea eskuz ateratzeko lana, muga fisikoa eta kontrol estua, kontrabandoa eta abar luze bat. Irunen iraganeke ezaugarriak dira jada. Hiriaren historiaren parte. José Luis Zabala Madina zenak egindako lanari esker, ordea, ez dira ahanzturan gelduko. Lauzabost urte eman zituen Irudi Ots ikus-entzunezkoen enpresaren sortzaileak gabarrarien ofizioari buruzko testigantzak, argazkiak eta bestelako dokumentazioa biltzen. *Hondoxka* dokumentala izan zen lanaren lehen emaitza. Orain, dokumentalerako bildutako materialean oinarrituta prestatu dute erakusketa, Unai Telmo Zabala semeak eta Irungo Udaleko Kultura departamentuak.

Gai tematikoen arabera banatutako paneletan, gabarren munduaren deskribapena egiten du erakusketak. Bidasoko gabarren sorrera zehaztea ezinezkoa da. Baina XV.mendean jada, bazeuden gabarren presentziaren berri ematen zuten dokumentuak. Zubirik ez zegoen garai hartan, etsaien sarrera ahalbidetzen zutelako. Beraz, garraiorako erabiltzen ziren gabarrak. Haien funtzioaren arabera, tamaina eta ezaugarri ezberdinak zituzten. Eguurrezkoak ziren denak, eta hondo laua zuten, sakonera gutxiko uretan erraz ibili ahal izateko. Zabalak ziren, eta ez oso altuak, merkantziaren karga eta deskarga errazteko. Pertika edo makil luze batez bultzatzen zituzten gabarrariak.

Bidasoaren ertzeko herrien arteko garraio bide bikaina izan zen ibaia mendetan zehar. Jende askok ogibide izan zuen gabarrari lana. "Jornala ateratzen genuen", adierazi du Nicolas Olasagasti Hondoxka dokumentaleko protagonistak. Merkantzia eta pertsonak garraiatzen zituzten gabarretan. Modu legal eta baimenduan askotan, baina kontrabando gisa ere bai. Karabineroak ezkutuko merkantziaren bila ibiltzen ziren maiz, gabarretako harearen edo belarraren artean, burdinazko ha-gaxka batekin. Merkantzia ondo ezkutatzeko baliabideak izaten zituzten gabarrariak, ordea. Kontrabandoan pasatzen zuten materialaren berri eman du Olasagastik: "Kobrea, errodamenduak, bujiak, puntillak, sakarina, puruak, irriatiak etab."

Lezoiak eta harea

Trenbidea eta zubiak eraiki zituztenean, bi zeregin nagusi geratu zitzaizkien gabarrariari, kontrabandoaz, arrantaz eta nekazaritzaz gainera. Lehenengoa, ibaiertzeko dikeen eraikuntza zen. Padurari lurra irabazi zizkieten aspaldiko irundarrek, nekazaritza jardueretarako, lehenengo, eta eraikuntzarako ondoren. Horretarako, zotal deituriko lur blokeak ateratzen zituzten ibaiertzetik, eta padurako lurra babesteko dikeak edo lezoiak eraikitzeke erabiltzen zituzten. Gabarrarien beste jarduera nagusia, ibaiaren hondotik harea

ateratzeko lana zen. Harea beltza eraikuntzarako ateratzen zuten, zuria berriz, nekazaritzarako. "Milaka metro karratu atera genuen", aipatu du Olasagastik. Itzasbeherarekin kargatu behar izaten zuten ontzia, eta itsasgoran portura bueltatu. Ontzira leku txiki ugari zegoen orduan ibaiertzetan.

Gabarrariak betetzen zituzten funtzio horiek ere ordezkatu egin zituzten, ordea, XX.mendean zehar. Hiriaren zabaltzearekin batera, eraikuntzarako harea ateratzeko prozesua mekanizatu egin zuten. Dragak eta gabarroi handiak erabiltzen hasi ziren. Ponpa motordunak eta xurgatzeko maki-

nak heldu ziren beranduago. Hormigoiak lezoiaren sistema zaharra ordezkatu zuen, era basatian, kasu batzuetan. Hiritik pasatzen diren erreken kanalizazioan gerrako presoak erabili zituzten, adibidez. Edonola ere, aldaketa guzti horien ondorioz, gabarrek irltako nekazarien garraio bide gisa besterik ez zuten biziraun, jarduera hori ere ia zeharo galdu zen arte. Gaur egun ez da gabarrarik ikusten Bidasoaren ertzetan.

Zabalaren dokumentazio lana

Gabarrarien ofizioaren desagertzeaz kontziente zelako, hain zuzen ere, dokumental bat egiteko ideia bururatu zitzaion José Luis Zabalari. Faisanen Irlako Festibalean soinu teknikari ari zela ezagutu zituen Gre-

gorio eta Nicolas Olasagasti, 2000 urtearen inguruan. Materiala irlara garraiatzeko arduradunak ziren gabarrari beteranoak. Haiekin izandako elkarrizketen ondorioz erabaki zuen José Luis Zabalak *Hondoxka* dokumentala egitea (Pertikaren laguntzaz nabigatzea da hondoxka aritzea). Filmean, Puntaletik Behobiarainoko bidea egiten dute Gregoriotik eta Nicolasek, gabarraz, eta haien bizipenak kontatzen dituzte ibilbidean. Ibaiaren ikuspuntutik grabatuta dago, gabarratik bertatik, edo beste ontzi batetik. Soinuaren trataeran ere arreta berezia jarri zuen egileak. "Zenbait irteera egin genituen, Jose Luis ez zelako erabat konforme gelditzen. Errepikatu eta errepikatu aritzen ginen. Azkenean gustura gelditu zen, eta gu ere bai", baieztatu du Nicolas Olasagasti gabarrari ohiak.

Dokumentala egiteko prozesuan, eta ondoren, beste gabarrari batzuk ezagutu zituen Zabalak, eta haiei ere elkarrizketak egin zizkien. Orain erakusketan bildu dute dokumentazio guzti hori, eta irundarrek behintzat ikus dezakete. Apirilaren 17ra arte egongo da Amaia Kultur Zentroan, asteartetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara. Igandetan, berriz, 11:30etatik 13:30etara irekiko dituzte ateak. *Hondoxka* dokumentala bi aldiz eman dute jada Amaian, eta ikusi ez duenak, beste aukera baten zain egon beharko du. Dokumentala eta erakusketa, alde batetik bestera garraiatzea gustatuko litzaioke Unai Telmo Zabalari, beste herrietan ere ikusi ahal izan dezaten. Gabarran, dagoneko, ezin izango ditu eraman.

Aitzindari izan zen Sancheski

Berrogeita hamar urte bete ditu Irungo markak sortutako lehen monopatinak

Denboraren igarotzea 70eko edo 80ko hamarkadan gelditu dela dirudi Anaka kaleko 26.ean. Lantegi zaharrak beste garai bateko itxura du. Kanpotik ez da zaratarik entzuten, ez da kerik ateratzen. Aparkalekuan, patinatzekeo arrapalak daude, eta ondoan, Volkswagen furgoneta urdina. Hantxe dago, lasai ederrean, gainerako ibilgailu modernoen ondoan aparkatuta. Duela lau hamarkada, ordea, estatu osoko errepideak zeharkatzen ariko zen, Team Sancheski skateboard talde historikoarekin batera.

Sánchez familiaren etxea lantegian bertan dago. Harrera gela du, eta enpresaren museo baten modukoa da. Enpresaren produktu zaharrak eta berriak, posterrak, garaikurrak eta bestelako oroigarriak daude nonahi. Team Sancheski taldearen pegatina berdea eta laranja duen mahaitxo baten inguruan eseri dira Sánchez anaia bibotedunak, eta Iciar, hirugarren belaunaldiko ordezkaria. Enpresaren historia azaldu dute, hasteko. II. Errepublikaren garaian sortu zuen Francisco Sánchezek Sancheski enpresa, 1934 urtean. Sánchez abizena Ski hitzarekin lotuta jarri zion izena. Aduan lan egiten zuen Sánchezek, eta kirol materiala inportatzeko enpresa txiki bat sortu zuen. Salis Ibilbidean izan zuen lehen egoitza. Gerra Zibilaren ondoren hasi zen produktuak fabrikatzen. 1950eko hamarkadan, inbertsio handia egin zuen, emaztearekin batera, Anaka kalean lantegia eta etxea eraikitzeke. Hamar urte beranduago, sortzailearen semeek, Javier eta José María anaiek, ideia berritzailea izan zuten. Estatuko lehen monopatina sortu zuten. Skateboard amerikararen bertsio irundarra.

Etxea lantegian bertan zegoenez, saltsan ibili ziren, txikitatik, Sánchez anaiak. Gimnasioetarako tresnak, ski-ak eta patinak fabrikatzen zituzten, orduan, Sancheskin. Etorkizuna bideratua zutela onartu du José María Sánchezek: "Neurri handi batean, familiako negozioarekin jarraitzea behartuta geunden. Guk gustura heldu genion, dena den". 1960ko hamarkadan, atzerriko informazioa eta eragina jasotzeko zeuden zailtasunak gaindituta, Ameriketako Estatu Batuetan arrakasta izaten ari zen skateboard-aren berri izan zuten. "Californiako kostaldean, surfa kalean egiteko tramankulu bat asmatu zutela jakin genuen. Simplea zen, egurrezko taula batekin eta patinen ardatz batzuekin egina", azaldu du José María Sánchezek. Instant batean egin zitekeela pentsatu zuten. Material egokia eskura zuten, gainera, lantegian ski-ak eta patinak egiten zituztelako. Egur trinko batekin eta hockey-eko patin batzuekin sortu zuten estatuko lehen skate-a, 1966an. Iruenen. Anakan.

Hasieran, bezeroak eszeptiko samarrak izan zirela onartu dute Sánchez anaiek. Batez ere, ez zekitelako monopatinarekin zer egin zitekeen. "Garraiolari batzuk ere ikusi izan ditugu, monopatinarekin objektuak alde batetik bestera eramaten", gogoratu du José María Sánchezek. Salbuespenak, surf kultura barneratzen hasiak ziren kostako herrietan topatu zituzten. Euskal Herrian eta Cantabrian, batez ere. AEBetako aldizkariak erosteko ohitura zuen jendeak, bazuen skateboard-aren berri. Baina estatu osoan zabaltzeko, Team Sancheski taldea sortu zuten, inguruko patinatzaile aitzindari gazteekin. 1967ko Volkswagen furgoneta urdina erosi zuten. Makina bat erakustaldi egin zuten, eta lehen lehiaketetan ere parte hartu zuten. Madrigo Kirolen Jauregian izandakoa gogoratzen du, bereziki, José María Sánchezek: "AEBetako Pepsi-Cola taldea etorri zen. Harmaila guztiak bete-beteta ikustea ikaragarria izan zen". Atzerrira ere joan ziren, Parisko Trocadero egiten zen erakustaldira, esaterako. "Asko ikasi genuen han. Gaur egun Youtuben topa dezakezu edozer, baina garai hartan ez zegoen halako mediorik", azpimarratu du Javier Sánchezek.

Produktua zabaltzeko promozio lana egin zuten

Pixkanaka, estatu osoan hedatu zen monopatinarekiko zaletasuna. 1970eko hamarkadako haur askok eskatu zituzten Sancheski-ak gabonetan edo urtebetetzeetan. Izen horixe eman baitzion jendeak tramankuluari. Irribarrez gogoratu du José María Sánchezek: "Fenomeno bitxia izan zen, egungo enpresa askok nahi luketena. Jendeak ez zekien monopatinari nola deitu, eta taulek markaren izena zeramatenez, markak produktua izendatzeko balio izan zuen urtetan". Beranduago, AEBetatik skate-ak inportatu nahi zituztenek, "sancheski amerikarrak" eskatzen zituzela erantsi du. Markarekin bakarrik ez, Irun hiriarekin ere lotu zuen, jende askok, monopatina. Sancheski izenari lotuta, sorlekua agertzen zelako beti. "Porcelanas Bidasoa, Chocolates Elgorriaga edo Palmera bezala, Irun hiriaren enbaxadore izan garaela uste

du", adierazi du José María Sánchezek.

Lehen prototipoarekin alderatuta, monopatina eraikitzekeo prozedura finduz joan zirela azaldu dute Sánchez anaiek. Materialak eskuratzeko, ez zuten gehiegi mugitu behar izaten: "Santanderren plastikozko materialak. Bilbon, poliuretanozko gurpilak. Errodamenduak, Bergaran. Eta egurra, Etxarri-Aranatzen edo Beran". 1978tik 1982ra artekoak izan ziren urterik onenak, salmentei dagokienez. Egunean mila monopatin ere fabrikatu izan zituzten Iruenen. Gero beheraldia etorri zen, konpetentzia handia sortu baitzen, Txinako material merkea iristen hasi zelako, batez ere. "Guri min handia egin zigun horrek. Monopatinen saltzaileak biderkatu egin ziren, eta anabasa horretan, erreferentzialtasuna galdu genuen", azaldu du Javier Sánchezek. Gaur egun altzairuaren sektoreak bizi duen krisia, haiek aspaldi pasa zutela baieztatu dute anaiek: "Kirol materialen sektorea eta jostailuena izan ziren kolpe hura jasotzen lehenak". Monopatina, ordea, ez zen enpresaren lan ildo bakarra, eta patinekin, ehungintzarekin, gimnasia aparatuekin eta beste produktuekin aurrrera egin zuten.



Jatorria buelta

Indarra eta bolumena galdu zuen produktuak, baina Sancheski ez zion monopatinak fabrikatzeari utzi. Haren inguruko kulturak izan duen bilakaeraren arabera moldatu behar izan dutela baieztatu dute Sánchez anaiek. Skate-ak etapa ezberdinak izan dituela azaldu dute, eraldatu egin dela, nolabait. Hasieran surfaren ordezkaria sortu zen. Gero, jaitsierak eta slalom-ak egiteko erabili zuten gazteek. Beranduago, street skate-ak hartu zuen indarra, kultura urbanoarekin, eta graffiti-arekin harremana estutuz. "Estetika eta praktikantearen profila aldatu ziren. Kaleko erre-



José María, Iciar eta Javier Sánchez.

beldearen itxura hori hartu zuen", aipatu du José María Sánchezek. Artistekin lan egiten hasi ziren garai hartan, monopatinentzako diseinu bereziak egiteko. Javier San Martín "Shaf" irundarrak parte hartu zuen, esaterako. "Oso interesgarria eta sortzailea izan zen fase hori", aitortu du Javier Sánchezek. Street fasearen ondoren, pistak eta skate parkeak eraikitzen hasi ziren hirietan, eta horietara lekualdatu dira skate zaleak.

Beste aro batean murgiltzen hasi da orain monopatinaren mundua. Erroetara bueltatzen ari da, surfaren girora. "Skate-a surfaren inguruan sortu zen, eta orain, surfeko mugimenduak imitatzen dituzten taulak diseinatzen ari gara", argitu du Iciar Sánchezek. Familia-enpresako hirugarren belaunaldiko ordezkaria da, José Mariaren alaba. Ingeniaritza ikasketak egin ditu, eta diseinu berrien garapenean aplikatzen ari da ikasitakoa. Slide izeneko skate-ak surfeko sentsazioak simulatzen dituela azaldu du: "Sistema berezia du aurreko ardatzean. Biraketak arinagoak dira, eta monopatina sendoagoa da". Aitak eta osabak egindako lanari jarraipena eman dio Iciarrek. Patinatzaile gazteak babesten jarraitzen dutela adierazi du, eta "zorionez", gero eta gehiago direla neskak. Berak ere aldeketa eman dio enpresari, generoaren ikuspegitik.

50 urte pasa dira skate-a estatura iritsi zenetik. Baina zale ugari ditu, oraindik. "Oso dibertigarria da", azpimarratu du Iciar Sánchezek. Arrakasta horrek arrazoi gehiago ere badituela uste du neskaren aitak: "Aitzindaria izan da beti. Moda baino pauso bat aurrerago joan izan da". Arropan, eta batez ere oinetakoetan skate-aren munduak zer nolako eragina izan duen gogoratu du. "Gaur egun gazte gehienek erabiltzen dituzte sorreran skate marka izandakoen oinetakoak", berretsi du Iciar Sánchezek. Team Sancheskiaren garaiko argazki bat atera du José Mariak, 70eko hamarkadako. Gazteek daramatzaten oinetakoak seinalatu ditu. Vans zapatilak dira, gaur egun kaleetan barra-barra ikusten direnen berdinak.



JOSÉ MIGUEL TOLOSA, Team Sancheski taldeko kide ohia:

“Auzoko pribilegiatuak izan ginen”



José Miguel eta Luis Tolosa.

Irunen, Tolosa abizena estu lotuta dago skateboard-arekin eta Sancheskirekin. Luis, José Miguel eta Juantxo anaiak haurrak zirela hasi ziren patinatzen, Anaka auzoan. Fabrikatik 200 metrora bizi ziren, eta Sánchez anaiek Team Sancheski talderako errekrutatu zituzten. 1980 urtearen inguruan hamahiru-hamalau urteko haurrentzat pentsaezinak ziren esperientziak bizi izan zituzten. José Miguelek kontatu ditu garaiko oroitzapenak.

Noiz izan zenuten skateboard-aren berri, lehen aldiz?

70eko hamarkadan hasi ginen dendetan monopatinak ikusten. Gu, haurrak ginela, bizikletan ibiltzen ginen, eta ikaragarri gustatzen zitzaigun abiadura. Baina bage-nuen Donostiako lehengusu helduago bat, surf munduan ibiltzen zena, eta dagoeneko monopatina erabiltzen zuena. Harekin hasi ginen patinatzen, eta lehen trukuak ikasten.

Non patinatzen zenuten Irunen?

Auzoko espaloietan hasi ginen. Anakako plazoleta zen erdigunea, Casinoaren parean dagoena. Han ibiltzen ginen auzoko gazte guztiak. Lagun batzuek egurrezko arrapala bat ere eraiki zuten. Gogoratzen dut gazte batzuk autobusaren atzeko aldeari helduta igotzen zutela malda, gero ziztu bizian jaisteko. Gidaria ez zen konturatzeko.

Iparraldera ere joaten ginen tarteka, zale-

tasun handiagoa zegoelako han. Jendeak esperientzia gehiago zuen, eta material hobea ere bai. Donibane-Lohizunen skate pista zegoen, Erromardia hondartzan. Larunbat arratsaldetan gurasoek hara eramaten gintuzten. Gurasoak paseoan ibiltzen ziren, eta gu, bitartean, pistan patinatzen. Asfaltoz egindako pista zen, oso bitxia.

Nola sortu zitzaizuen Sancheski taldean patinatzeko aukera?

Fabrikatik oso gertu bizi ginen. Nire aitak Tolosa inprenta zuen, eta harreman komertzialak zituen Sancheskirekin. Gu patinatzen hasi ginenean, Sánchez anaiekin hitz egin zuen, fabrika erakusteko, eta hango arrapaletan ibiltzen uzteko.

Orduan taldea sortzen ari ziren. Haiek monopatina atera zutenean, dendetan jartzen zuten salgai, baina jendeak ez zekien erabiltzen. Gehienek taularen gainean eserita maldak jaisteko erabiltzen zuten.

Taldearekin, monopatinaren erabilera zabaldu nahi zuten. Arabako eta Bizkaiko jendea zuten, baina Irungo patinatzaileak ere nahi zituzten taldean. Ondo moldatzen ginela ikusi zutenez, taldeko kide izatea eskaini ziguten. Guretzat aukera ikaragarria izan zen. Auzoko pribilegiatuak izan ginen aurrerantzean. Material berriena ematen ziguten, eta probatu ere egiten genuen, fabrikako arrapaletan.

Estatu osoan zehar bidaiatu zenuten, gainera. Nolako esperientzia izan zen?

Volkswagen furgonetarekin joaten ginen alde batera eta bestera. Gu haurrak ginen oraindik, baina Gasteizkoak, adibidez, helduagoak ziren. Bospasei urte gehiago zituzten, eta neska-lagunak eramaten zituzten. Aterpetxeetan egoten ginen, eta haiekin elkar bititza oso erakargarria zen guretzat. Bestalde, famatuen gisan sentitzen ginen. Jendearentzat oso harrigarria zen monopatinarekin egiten genuena, eta ikusle mordoa izaten genuen.

Skate-arekin oso ondo ibiltzen zen jendea ezagutuko zenuten.

Bai, Bartzelonan adibidez, oso jende ona zegoen. Hori bai, talde moduan, Sancheski estatuko onena zen. Bakarka, patinatzaile onak zeuden, eta asko ikasi genuen haiengandik. Bartzelonako Arenys de Munt-en antolatu zuten Espainiako Txapelketa gogoratzen dut bereziki.

Noiz arte aritu zineten taldearekin?

Lauzpabost urte eman genituen, baina gero utzi egin genuen. Hasierako aparra baretu egin zen, eta monopatinak indarra galdu zuen pixkanaka, patinekin alderatuta, adibidez. Sancheski ere patinetan

zentratu zen. Patinekin jarraitzeko animatu nahi izan gintuzten, baina guri ez zitzaigun gustatzen. Ez zen gauza bera.

Beranduago ere izan ditu bolada onak monopatinak.

Bai. Bospasei urte beranduago skate parkeak eraikitzen hasi ziren hirietan. Denborekin egonkortu egin da, eta kirol bat gehiago da orain. Instalazioak daude hiri gehienetan, zale fidelak ere bai, eta gazteak harrapatzen ditu. Zenbait ezaugarri erakargarri dituela uste dut: abiadura, adrenalina, arrisku puntu bat etab. Gainera, gazte alternatiboaren eta errebeldearen ikurra ere bada.

Patinatzen jarraitu al zenuten, taldea utzi ondoren?

Alde batera utzi genuen, ikasketekin eta beste jarduera batzuekin hasi ginenean. Azken aldian, seme-alabak eta ilobak patinatzen hasi dira, eta zaletasuna berreskuratu dugu, haiekin batera. Baina neurri berean ez, jakina. Ni gaur egun ez naiz skate parkean sartzen. Jada ez ditugu hamabost urte, eta eroriz gero min handia hartu dezakegu.

Gaur egun kaskorik eta babesik gabe patinatzen dute gazte askok. Zuen garaian ere bai?

Ez. Gu kaskoarekin eta ukondoetako eta belaunetako babesekin ibiltzen ginen. Profesionalak ere horrela aritzen dira. Gaztetxoek babesik gabe patinatzen dutela ikusten dut, eta arrisku handia hartzen dute, egia esan, zementuzko pistan erortzeak lesio larriak eragin ditzakeelako. Babesen erabilera derrigortu behar litzateke.

Vendetta, Efecto Pasillo eta Descanso Dominical taldeak eskatu dituzte irundarrek sanmartzialetarako



Parte hartze prozesua antolatu du Irungo Udalak San Pedro eta San Martzial jaietako kontzertuetan zein talde ariko diren erabakitzeko. Ondorengo taldeak izan dira bozkatuenak: Vendetta (euskarazko taldea), Efecto Pasillo (estatuko taldea) eta Descanso Dominical (tributu taldea).

2.362 izan dira botoa eman duten irundarrak. Aurreko bi urteetako parte hartze kopurua bikoiztu egin dela baieztatu du Irungo Udalak.

Parte hartzearen prozedura aldatu du aurten udalak. Aldez aurretik zehaztutako hautagai batzuen artean aukeratu behar izan dute hiritarrek. Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak argudiatu du aurreko urteetan bozka gehien jasotzen zituzten taldeek ez zituztela udalaren baldintzak betetzen, agendari edo aurrekontuari dagokionez. "Iaz gehien bozkatutako en zerrendatik 13.enak betetzen zituen baldintza guztiak, eta duela bi urte 24.enak", adierazi du Eizaguirrek.

Aste bateko epea

53 proposamen egin ditu udalak, eta irun.org web gunean edo CBA-n bozkatu ahal izan dute irundarrek, aste betez. Ekainaren 23rako, euskaraz abesten duten taldeak proposatu ditu udalak. Vendetta talde nafarra izan da irabazlea,

botoen %25ekin. Ekainaren 25erako, tributu taldeen zerrenda eskaini du udalak, eta Mecanoren abestiak jotzen dituen Descanso Dominical jaso du bozka gehien (%18,6). Ekainaren 28rako, gaztelaniaz abesten duten euskal taldeak, edo estatuko beste lekuetakoak proposatu ditu udalak. Efecto Pasillo kanariarrek irabazi dute bozka, botoen %7,9rekin.

Irundarrek gehien bozkatutako taldeekin harremanetan hasi dela baieztatu du Irungo Udalak, kontratazioa gauzatzeko. Banda horietako bakoitzaren aurretik, Irungo talde batek joko duela baieztatu du udalak. Horretarako, proposamenak egiteko aukera eman diete prozesuan parte hartu dutenei. Aldez aurretik zehaztutako zerrenda bat ez zegoenez, azken hautaketa egiteko denbora gehiago beharko dutela jakinarazi du udalak. Bestalde, 200 ekarpen edo iruzkin inguru jaso dituztela, eta aztertuko dituztela adierazi du Juncal Eizaguirrek: "Antzeko ekimenterako kontuan hartuko ditugu".

K-Biziak programak jarraipena izango du

Laster zabalduko du Irungo Udalak K-Biziak programan parte hartzeko deialdia. Hiriko gune jakinetan tokiko komertzioa sustatzeko egitasmoa da. Lokalak alokatzeko %50eko diru-laguntza eskaintzen du udalak lehen urtean, hileko 400 euroko gehieneko kopuruarekin. Bigarren urtean, %25ekoa da laguntza, 200 euroko gehienekoarekin. Lokalak eraberritzeko diru-laguntzak ere eskaintzen ditu udalak. %30ekoak edo %20koak izan daitezke, lokalaren kokapenaren arabera. Iturgintza eta beiragintza lanak egiteko edo erakusmahaiak eta altzariak jartzeko diru-laguntzak dira. Interesa duenak Promozio Ekonomikoa arlori dei egin dezake

(943 505336). Bidasoa Bizirik garapen agentziak ere parte hartzen du egitasmoan.

Hamalau komertzio 2015ean

2010ean jarri zuten martxan K-Biziak programa. Orduz geroztik, 65 komertzio edo establezimendu zabaldu dituzte diru-laguntzei esker. Horien %85 martxan daude oraindik. "Komertzio horiek izan duten bilakaerarekin pozik gaude", baieztatu du Miguel Ángel Páez Promozio Ekonomikoa arloko ordezkariak. 2015 urtean hamalau lokal zabaldu dituzte K-Biziak programaren bidez. 21 enplegu sortu dira horietan.



Literatur Lehiaketa Errepublikarra antolatu du Nicolás Guerendiainek

Balore errepublikanoak gazteen artean hedatzea helburu duen literatur lehiaketa antolatu du Nicolás Guerendiain Irungo Elkarte Errepublikarrak. Literatur Lehiaketa Errepublikarraren VIII.edizioa izango da. Laikotasuna da aurtengo ediziorako aukeratu duten gaia. Ondorengo galderak planteatu dituzte antolatzaileek: "Eskoletan irakatsi behar al da erlijioa? Agintari publikoek erlijio ekitaldietara joan behar al dute? Herriko jaietatik erritu erlijiosoak kendu behar dira?".

Bi kategoria egongo dira: 12 eta 16 urteen arteko tartean daudenena, eta 16-25 urte artekoena. Euskarazko eta gaztelaniazko atalak egongo dira bietan. Orrialde bateko idazlana aurkeztu beharko dute parte hartzaileek gutxienez, eta bost orrialdekoa, gehienez. Espazio bikoitza eta Arial 12 letra erabili beharko dute. 100 euroko hiruna bale banatuko dituzte antolatzaileek sari gisa, adin tarte eta hizkuntza bakoitzeko. Elkar eta Oskarbi libururaren dendetan eta Queens tatuaje eta piercing dendan gastatzeko baleak izango dira.

Lanak bikoiztuta aurkeztu beharko dira, gutun azal baten barruan. Gutun azalak ondorengo esaldia eraman beharko du: "VIII. Literatur Lehiaketa Errepublikarra Gazteentzat". Idazlanak ezinenez bidez sinatu beharko dira, eta derrigorrezkoa izango da gutun azal itxi batean ondorengo datuak eranstea: izena, abizenak, NAN zenbakia, jaioteguna, helbidea, harremanetarako telefonoa eta egilearen e-posta. "NICOLÁS GUERENDIAIN" IRUNGO ELKARTE ERREPUBLIKARRA - 10008 RUN helbidera bidal daitezke lanak. Arbelaitz kaleko 3.ean uztea da beste aukera. Ekainaren 30era arte hartuko dituzte lanak.

Folder



Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiarart.net
kopiarart@kopiarart.net
943 63 93 01

Txingudi Ikastola HH 4 urte

NATHA KAIRA
KAMILA ETABEREA MA

4 urte



Hirubide DBH2

Izena

Sagar tarta

Osagaiak:

Kilo bat sagar
 Koilarakada bat irin
 Hiru arrautza
 Lau koilarakada azukre
 Koilarakada erdi bat legami
 Azukrea

Prestatzeko era:

Sagarrak zuritu eta mehe-mehe moztuko ditugu. Gero arrautzak irabiatu eta azukrea, legamia eta irina gehituko ditugu. Dendena nahastu dugunean gurinez bustitako bol batean jarriko dugu. Ondoren ebakitako sagarrak gehituko dizkiogu. Labean 180º gradutan utziko dugu.

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A. andereari jasoa (1959-III-15) (El Bidasoa, 1959-IV-18)

Aur ttiki batena

Aurrari ixillik egoteko kantatzen zayo:

Xango-mango
 aurra nongo
 ona bada
 guretzako,
 gaixtua bada
 prailliantzako

Ura ta mama
 goxua
 baso pestiyo
 gaixtua

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
 Euskaraz, Irunen barrena.

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

**Zerbitzuak:**

*Kudeaketa administratiboa, laborala,
 kontularitza eta zergenak
 Ibilgailuen eskualdaketa
 Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...*

*Errenta aitortpenak
 Aseguru orokorrak
 Eta abar...*

GORKA MARTINEZ, Un Pais En Mi Mochila blogaren arduraduna:

“Irakurri nahi nukeen bloga egiten saiatzen naiz”

Bere zaletasun nagusietako batzuk uztartzeko modua topatu du Gorka Martinez irundarrak Un Pais En Mi Mochila blogaren bidez (unpaisenmimochila.blogspot.com). Egingdako bidaien eta mendi ibilbideen inguruko informazioa elkarbanatzen du, xehetasun eta baliabide erabilgarriekin. Asteburu baterako plana edo udarako bidaia planifikatzen dabilenak badaki, jada, non kontsultatu.



Nola erabaki zenuen zure abenturak blog batean jasotzea?

2014ko abuztuan bururatu zitzaidan. Italian nengoen, praktika batzuk egiten, eta handik Esloveniara bidaia txiki bat egin nuen. Ez da ohiko turismo gunea, baina interneten begira ibili nintzen, eta leku interesgarriak topatu nituen. Guzti hori elkarbanatzeko blog bat sortzea erabaki nuen, bidaiak eta mendi ibilbideak bilduko zituena. Mendira ia astero joaten naizenez, eta bidaiak noizean behin besterik egiten ez ditudanez, mendi ibilbide gehiago daude bidaiak baino.

Bloga sortu aurretik ere web espezializatuak kontsultatzen zenituen bidaiak presartzeko?

Bai, turismoarekin lotutako web gune famatuak kontsultatzen nituen. Baina azkenean, blogak irakurtzen amaitzen nuen beti. Jende arruntaren bizipenen berri ematen dute, eta balio handia du horrek. Azken finean, web gune ezagunek babesleak izaten dituzte, eta ondorioz, interesak eta presioak ere bai. Blogak naturalagoak dira. Gustatzen zaizkidan blogak aztertuta, nireari forma emateko modurik egokiena garatuz joan naiz.

Testuak landu egiten dituzu. Ez dira ibilbideen deskribapen hutsak eta hotzak.

Ez. Egia esan, ordenagailuaren aurrean idaztera esertzen naizenean, gustura sentitzen naiz. Beti gustatu izan zait idaztea, baina ez dut gehiegi lantzeko aukerarik izan. Beste bide batzuetatik eraman naute ikasketek. Orain, behintzat, nire ibilbideetako eta bidaietako esperientziak kontatzen ditut.

Nola hautatzen dituzu argazkiak, eta haien kopurua?

Ez da erraza oreka lortzea. Testu asko jartzen dut, baina irakurlea ez aspertzeko adina. Argazkiei dagokienez, bereizgarriak besterik ez ditut hautatzen. Nabarmenezkoa da bloga elikatzeko, gustatzen zaizkidan jarduerak uztartzen ditudala: idaztea, argazkiak ateratzea, kirola egitea eta bidaiatzea. Aurkikuntza handia izan da nire bizitzan.

Bestelako baliabideekin aberasten duzu bloga: mapak, GPS track-ak, altueren eta desnibelen inguruko informazioa etab.

Irakurri nahi nukeen bloga egiten saiatzen naiz. Behin bloga elikatzeko lana hartuta, ondo egitea dut helburu. Track-ak jarraitzea, adibidez, oso erabilgarria da mendian. Markatutako bide batean baldin bazaude, ez dago arazorik, baina bidetik ateratzen baldin bazara, track-a behar duzu derrigorrez. Mugikorrarekin nola egin daitekeen azaltzen duen sekzioa sortu dut blogean.

Blogeko edukiak zabaltzeko lana egin duzu?

Facebook-en besterik ez dut hedatu. Bisitariak Facebook bidez heltzen zaizkit, eta wikiloc-etik ere bai, track-ak igotzen ditudanean blogaren esteka jartzen dudalako. Berdin ibilbideak edo Mendikat web guneetan ere. Bide guzti horietatik heltzen dira bisitariak. Bestalde, google-eko posizionamenduan gora egiten ari naiz pixkanaka.

2014ko udarak geroztik, 16.000 bisitari izan ditut. Gero eta jende gehiagok esaten dit blogeko ibilbideak egin dituela, edo bidaiatzeko erabili duela. Horrek asko pozten nau.

Egin dituzun bidaien artean, zein aukeratu zenuke?

Esloveniakoaren oroitzapen ederra dut, ondo prestatu nuen lehenengoa izan zelako. Baina onena, Portugalgo Algarvera egin genuena izan zen. Lagun batzuekin joan nintzen, eta Algarveko kostaldea zeharkatu genuen, hondartzetan lo eginez.

Mendiko ibilbideei dagokienez?

Zaila da aukeratzea, denetarik dagoelako. Baina esan dezaket hiru direla nire gogokoak. Jaizkibelgo itsasertzetik doana da horietako bat. Labetxu eta beste zenbait kala eder ikusteko aukera ematen du.

Erronka gisa hartu genituen beste bi ere aipatuko nituzke. Batetik,

Aralarreko hamabi gailur egin genituen, hamabi mahats jan beharrean, abenduarren 31n. Bestetik, Aiako Harria punta batetik bestera zeharkatu genuen. 30 km-ko ibilbidea da, Irundik Hernanira. Noizean behin horrelako astakeriak planeatzen ditugu.

Lagunekin egiten dituzu beti irteerak?

Bai. Irundik ateratzen garenean, kuadrillakoeekin, edo inguruko beste lagunekin. Bizkaikoak, unibertsitateko lagunekin edo pisu-kidearekin. Jendea ezagutzeko modu

aproposa iruditzen zait niri. Lauzpabost ordu ematen dituzu mendian hitz egiten, edozein gairi buruz. 2015 urtean 42 lagun ezberdin etorri dira nirekin. Batzuk egunean bertan ezagutu nituen, eta beste batzuekin harremana estutzeko aukera izan dut.

Mendira irtetea ez da ohiko zaletasuna izaten, gazteen artean.

Pena da, alternatiba ona delako. Unibertsitatean hasi nintzenean, Irunera bueltatu eta asteburua lokalean pasatzen nuen. Larunbatean parrandan ateratzen nintzen, igandea ajearekin pasatzen nuen, eta asteburuak ez zuen gehiagorako ematen. Orain, asteburuak aprobeztatzeko beste modu bat topatu dut. Jende baten aitzakia da nekagarria dela. Baina ibilbide errazak ere badaude, leku politak ezagutzeko aukera ematen dutenak. Adibidez, badago jende asko Aitzondo ur-jauzia ezagutzen ez duena. Irundik oso gertu dago, eta ederra da.

Medikuntza ikasten ari zara. Printzipioz ez du zer ikusirik. Planteatu al duzu mendietan eta bidaietan lotutako lanposturen bat lortzen saiatzea?

Hasteko, mendiko mediku izatea pentsatu izan dut. Bi gauza horiek elkartzea ikaragarri gustatuko litzaidake. Bestela, Euskal Herriko txangoak egiteko agentzia bat martxan jartzea ere buruan dut. Jende gazteari zuzendua, batez ere. Inguruko mendi elkartean, behintzat, adineko jendea egoten da. Ez dute jende gaztea erakartzea lortzen. Etorkizunean gazteentzat ibilbideak antolatzea da nire ideietako bat.

“Gero eta jende gehiagok esaten dit blogeko ibilbideak egin dituela, edo bidaiatzeko erabili duela”

UDALEKUAK ETA GAZTE OPORRALDIK (7-13 URTE ETA 14-17 URTE)



Zer? Udalekuetara joan nahi duzu??? Ez galdu aukera hau!!! 7-13 urte bitartekoentzat eta 14-17 urte bitartekoentzat.

Jarduerak:

Ingurumenekoak: baserri eskoletan egiten direnak.

Kirolekoak: piraguismoa.

Artisautzakoak: Tailerrak: eskumuturrekoak, birziklatutako materialekin eta abar.

Noiz? Noiz: uztailaren 1etik abuztuaren 14ra arte, biak barne).

Non? Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Izen emateak: apirilaren 4tik aurrera.

Zozketa: apirilak 18.

Informazio gehiago?

<http://www.gipuzkoangazte.eus/eu/gure-programak/udalekuak>

AUZOLANDEGIK 2016

Zer? Auzolandegietan leku askotako gazteak biltzen dira, euren borondatez eta ordainetan ezer jaso gabe, aldi batez elkarrekin bizi eta gi-

zarte osoarekin zerikusia duen proiektu batean parte hartzeko asmotan.

Proiektu hori egitea bitarteko bat da balio jakin batzuk bultzatzeko: bizikidetzatza, tolerantzia, elkartasuna, parte hartzea, kulturen arteko ikas-kuntza eta abar.

Noiz? Apirilaren 6tik 12ra, interneten bidez.

Informazio gehiago:

gazteria-azuzolandegiak@euskadi.eus



AUZOLANDEGIK 2016. KAMISETEN LOGOEN LEHIAKETA

Zer? Bidaliguzu zure logoa eta trukean joan-etorriko hegazkin bidaia irabaz dezakezu Hego Amerikako herrialde batera (2016an Lan-kidetzatza programa bat egingo den Hego Amerikako herrien

arte).

Logoak bi edo hiru kolore izan behar ditu, eta programarekin bat datozen helburuak bildu behar ditu.

Norentzat? 18-30 urte bitartekoentzat.

Epea? Apirilak 11.

renfe

DESKONTUAK TRENATAN

Zer? Tarjeta +Renfe Joven 50 txartela 14 eta 26 urte bitartekoei zuzendua dago. Hainbat deskontu/onura eduki ahal izango duzu. (erosteko gehie-

nezko adina: 25 urte).

Txartelak %50eko deskontuak ditu distantzia luzeko bidaietan eta AHT trenean, beste bidaia mota batzuetan ere deskontuak eduki ditza-

kezu, hala nola aldiriko trenetan.

Nola eskuratu tarjeta +Renfe Joven 50 txartela?

<https://venta.renfe.com/vol/menu/Tarjeta.do?Idioma=es&Pais=ES&inirenfe=SI>



JADA ESKURA DAITEKE GAZTE TXARTELAREN 2016KO PACK-A!!!

Zer? Zuretzat prestatu dugun Pack bat da, eta jarduera interesgarri ugari proposatzen dizkizugu bertan: aisialdi, kultura, kirol... abantailak, 2016 osoan aisialdiaz goza dezazun, gutxiago gastatuta.

Eta badakizu, kupoi digitala zein paperezkoa erabiltzeko unean zure Gazte-txartela

eta NANA erakutsi behar dituzu.

Oraindik Gazte-txartela ez baduzu, zeren zain zaude? Egin oraintxe Gazte-txartela eta zeure etxean jasoko duzu.

Informazio gehiago: <http://www.gazte-ukera.euskadi.eus/r58-2721/eu>



www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT





Maiatzak 31ra arte

Zer? Mikel Arrazola argazkila-riaren "Biodiversidad a una hora de casa" erakustaldia.

Non? Plaiaundi Parke Ekolo- gikoa. Pierre Loti Ibilbidea.

Ordutegia?

- Asteartetik ostira- lera: 9:00-15:00 eta 15:30-17:30.

- Larunbata, igandea eta astelehena: 10:00-14:00 eta 15:30-17:30.

Prezioa? Doan.

wegunea: <http://www.inguru- mena.ejgv.euskadi.eus/infor- macion/centro-de-interpre- tacion-txingudi-ekoetxea>

Apirilak 2

Zer? "Ruz - Bárceñas" antzer- kia Irunen izango da.

Non? Amaia KZn

Ordua? 20:00tan.

Salmentak?

- Interneten bidez: <https://ticket.kutxabank.es>

- Zuzenean: Irungo Turismo bulegoan, Luis Ma- rianon.

- Zuzenean: Ikuskizu- naren egun berean, leihatilan.

Prezioa? Sarrera orokorra 14 euro; Langabeek, 14 urte- tik beharokoe eta Gazte Txar- tela dutenek, 9 euro.

Apirilak 6

Zer? Argoiak Elkarteak "Zer dira transgenikoak?" hitzaldia antolatu du. Josetxu Canales izango da hizlaria.

Ordua? 17:00tan.

Non? Argoiak Elkarte Kultu- rala Bertsolari Uztapide, 6.

Prezioa? Doako Sarrera.

Apirilak 13

Zer? "Azken bidai" filma eus- karaz emango da.

Ordua? 18:30etan.

Non? CBA Liburutegian

Prezioa? Doako Sarrera.

informazio gehiago: www.irun.org

Apirilak 14

Zer? Bere xarmak erakarrita, Fermin Muguruza The Big Easy-ra joan da disko bat gra- batzera: Irun Meets New Orle- ans. Bertan, alde batetik, bere ibilbideko zortzi abesti mol- datu ditu New Orleanseko doi- nuetara eta hiriko bi klasiko interpretatu ditu, eta bestetik, Nola? dokumentala zuzendu du. Dokumentala Kabigorri- n emango dute.

Ordua? 19:30etan.

Non? Kabigorri

Prezioa? Doako Sarrera.

informazio gehiago: www.kabigorri.org



MEAKAKO JAIK!

Apirilak 1 - ostirala

- 17:30: Umeentzako tailerrak.
- 21:00: Auzokoen eta Bazkideen afaria, Juanita jatet- xean.

Apirilak 2 - larunbata

- 18:00: Argazki lehiaketen erakustaldia eta Patata Tortila Lehiaketa.
- 20:00: Sari banaketa.

Apirilak 3 - igandea

- 11:00: Meza.
- 12:00: Motozerrarekin egindako figuren erakustaldia, bertsolariekin.
- 14:00: Auzoko nagusien bazkaria.

IBARLA MEAKA AE
Meaka, 84

<http://meaka84.blogspot.com/es/>



teleinmobiliaria

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN **+34 669 408 705**
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

| | | |
|---|---|---|
|  <p>Pisua salgai Irun Kolon Azalera 151 m², 3 gela, bainugela 1, 2 komun, egongela, sukaldes, 3 baloi, bigonkaria, egokitua.</p> <p>Ref: 04472 210.000 €</p> |  <p>Pisua salgai Hendala Azalera 65 m², 2 gela, 2 bainu- gela, bermea, komuna, egongela, sukaldes, terraza, trasterokua, bermea, elektrika, hozkailuak, egokitua eta beste politikiak. Aterketak parte.</p> <p>Ref: 03511 165.000 €</p> |  <p>Pisua salgai Irun Azken-Portu Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainu- gela, egongela, sukaldes, baloiak, egokitua, bermea eta beste politikiak. ESU erregistratua.</p> <p>Ref: 04457 186.000 €</p> |
|  <p>Pisua salgai Irun Larreaundi Azalera 77 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldes, baloiak, trasterokua, bermea, bermea eta beste politikiak.</p> <p>Ref: 04464 125.000 €</p> |  <p>Pisua salgai Irun Palmeran Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainu- gela, egongela, sukaldes, baloiak, trasterokua, egokitua, bermea eta beste politikiak.</p> <p>Ref: 04299 248.000 €</p> |  <p>Pisua salgai Irun Kolon Azalera 70 m², 2 gela, 2 bainu- gela, egongela, sukaldes, bermea, egokitua, trasterokua eta 41 m²ko terraza.</p> <p>Ref: 03592 250.000 €</p> |
|  <p>Pisua salgai Irun San Miguel Azalera 101 m², 3 gela, bainu- gela, komuna, egongela, sukaldes, baloiak, gas bermea, egokitua, trasterokua, egokitua eta beste politikiak.</p> <p>Ref: 04481 235.000 €</p> |  <p>Etxea salgai Irun Ventas Bi abelbaitzako etxea. Azalera 146 m², 4 gela, 2 bainu- gela, 2 egongela eta 2 sukaldes. Terraza eta jardua.</p> <p>Ref: 01851 207.000 €</p> |  <p>Jabetzea salgai Irun Olaberria Labela Etxea Azalera 770 m², openkalea, terraza. Jabetzea aparta. Bi etxebizitza ditu, bermea eta 70 m²ekin.</p> <p>Ref: 04250 Kontsultatu</p> |

"ALQUILER PREMIUM" www.plandeprotecciondealquiler.com **ekin**



Amona Kattalin Txoko jatetxea Meaka auzoan dago. Erraztasuna aparkatzeko, zerbitzu arretatsua, kalitatea, eta prezio ona.

Tel: 843 98 57 06
Meaka Auzoa, 9, Irun.

